



2. ERANSKINA. JOKABIDE KODEA

1. STEAM Sare.

STEAM Sareren esparruan, ikastetxeek eta STEM profesionalak dituzten enpresek edo bestelako eragileek elkarrekin garatzen dituzte STEM gaietara lotutako jarduerak (bisitak enpresetara, erronka teknologikoei buruzko tailer didaktikoak, etab.).


Ikastetxeei interesatzen zaie haien ikasleek lehen eskutik ezagutzea negozioak, ikerketa eta ekoizpena nolakoak diren mundu errealean, eta baita ere, ikasleek jakitea STEM diziplinek haien etorkizunean zer nolako garrantzia izango duten.

STEM profesionalak dituzten enpresei eta bestelako eragileei (aurrerantzean, eragile sozioekonomikoak) ikastetxeekin harreman estua izatea interesatzen zaie, Gizarte Erantzukizun Korporatiboarekin duten konpromisoari lotuta.

Hala ere, ikastetxeen eta eragile sozioekonomikoen arteko lankidetzak ez da beti erraza izaten. Bi aldeek, eta beraz haiei lotutako irakasleek eta profesionalak kezka izan ditzakete gai praktikoei, etikoei, segurtasun eta osasun arlokoiei, marketara, datu pertsonalak babesteari, elkar errespetatzeari eta abarri lotuta.

Jokabide-kode honen helburua hau da:

- Aipatu dugun lankidetzak horretan sor litezkeen aferei aurrea hartzea, bi aldeentzat onuragarria izango den harremana eragotz dezaketen oztopoak gainditzeko tresna gisa.
- Ikastetxeei eta eragile sozioekonomikoei, eta beraz baita haietako irakasle eta profesionalei ere, lankidetzak segurua eta trabarik gabekoa ezartzen lagunduko dien printzipioak eta ildoak ematea.

- 
- STEAM Sareren esparruan bisitaldiak prestatzeko eta ikastetxeen eta eragile sozioekonomikoen artean egiten diren jarduerak zehazteko abiapuntu izatea, era berean, tokiko espezialitate kulturalak eta arauzkoak aintzat hartuta.


4.3. oinarria betez, ikastetxeek eta eragile sozioekonomikoek arduratu beharko dute jarduerak egiteko izendatzen dituzten irakasleek eta profesionalak jokabide-kode hau betetzen dutela zaintzeaz.

Horretarako, ikastetxeek eta eragile sozioekonomikoek haien gain hartu beharko dute erantzukizuna, jarduerak egiteko izendatzen dituzten irakasleek eta profesionalak jokabide-kodeari lotuta arau-hausteak egiten badituzte.

2. Sareko kide diren entitateentzako printzipio orokorrak

Ikastetxeetara edo eragile sozioekonomikoen instalazioetara bisitak egiteko ildoak azaltzen hasi aurretik, komeni da lankidetzak oinarri izan behar dituen printzipio orokorren esparrua ezartzea, sen onetik, kortesiatik eta lankidetzaren horretan parte hartzen duten entitateen eta pertsonen arteko elkarrenganako errespetutik.

- **Erantzukizuna.** Lankidetzaren bakoitzean parte hartzen duten entitateek eta pertsonak zuzentasunez eta arduraz jokatu behar dute, proiektua eta, zehazki, jardueraren bakoitza ondo ateratzen laguntzeko ingurua sortzeko.
- **Indarrean den araudia betetzea.** Lankidetzaren bakoitzean parte hartzen duten entitate eta pertsonak indarrean eta aplikagarri den araudia bete behar dute, eta dagokion baimenak eta adostasunak lortu. Hala, lankidetzaren segurua, eraginkorra eta arauzkoa dela bermatuko da. Hori horrela, eta adingabeei zuzendutako jarduerak direla aintzat hartuta, haurrak eta nerabeak babestearen arloan, indarrean den legeriaren arabera, une bakoitzean aplikagarri diren xedapenak betetzen direla zaindu beharko da.



Bereziki, 3. puntuan sexu-delituen aurrean babesteari buruz ezarritako xedapenak bete beharko dituzte.

- **Komunikazio eraginkorra.** Komunikazio ona ezartzea funtsezkoa da edozein proiektu ondo ateratzeko. Lankidetzaren bakoitzean parte hartzen duten entitateak eta pertsonak elkarren artean argi, zehatz eta eraginkortasunez komunikatzen saiatuko dira, edozein dela ere horretarako erabiltzen duten euskarria. Lankidetzaren bakoitzean parte hartzen duten entitate eta pertsonak elkarri informazioa garaiz eman behar diote jarduerari eragin diezaiokkeen eskakizun bereziren bat edo gorabeheraren bat bada.


3. Sarean sartutako entitateentzako arau espezifikoak.


Lankidetzaren oinarri orokorren esparrua zehaztu dugu eta orain, lankidetzaren arautuko duten arau espezifiko batzuk azalduko ditugu.

- **Marketina eta komunikazioa.** Funtsezkoa da marketin- eta komunikazio-ekintzak jardueraren mota bakoitzerako orokorrean onartuta dauden arau eta kodeak betetzeko. Ezerk ez ditu ahuldu behar STEAM Sareren izaera hezitzailea, gurasoen edo tutoreen gida eta jardueraren edo lankidetzaren bakoitzaren helburu pedagogikoak.

Aintzat hartu behar da, halaber, parte hartzen duten ikasleen adina, eta kontuan izan behar da adingabeak ezin direla izan publizitate komertzialaren xede.


- **Informazio konfidentziala errespetatzea.** Irakasleek eta ikasleek, eta eragile sozioekonomikoetako profesionalek eskuragarri izan dezaketen informazio konfidentziala babesteko neurri guztiak aplikatuko dira (informazio hori jarduerari lotuta, nahi gabe edo nahita eskuratzen badute).

- 
- **Datuak eta pribatutasuna babestea.** Jardueretako parte-hartzaileen datu pertsonaletatik, jarduerak antolatzeko eta garatzeko behar-beharrezkoak direnak bakarrik tratatuko dira, ez dira beste ezertarako erabiliko eta partaideen pribatutasuna erabat errespetatuko da, horri buruz STEAM Sare arautzeko Oinarrietako 7. oinarrian ezarritako jarraibideak betez.
 - **Sexu-delituen aurrean babesa.** Sareko entitateek arduratu beharko dute adingabeekin jarduerak garatzen dituzten pertsonak sexu-deliturik egin gabekoak izan behar dutela zaintzeaz. Horretarako, sexu-delituen ziurtagiri negatiboa aurkeztuko dute, horri buruz STEAM Sare arautzeko Oinarrien 4.2.) oinarrian ezarritako jarraibideak betez.
 - **Irudi-eskubideak kudeatzea.** Partaideen esku-hartzea argazki-euskarrian edo ikus-entzunezko euskarrian erregistratu nahi bada ondoren horiek zabaltzeko helburuarekin, partaideei, aldez aurretik baimena eskatu beharko zaie eta behar bezala azaldu beharko zaie nola erabiliko diren irudi horiek, eta irudietan azaldu nahi ez duenari aukera eman beharko zaio horretarako, horren inguruan STEAM Sare arautzeko Oinarrietako 9. oinarrian ezarritako jarraibideak betez.
 - **Giro osasungarria eta segurua.** Jarduerak giro osasungarri eta seguruan garatu behar dira. Giroa osasungarria eta segurua izateko, ikastetxeen eta eragile sozioekonomikoen arteko prestaketa osatua eta komunikazio eraginkorra beharrezkoak dira. Horrez gain, ikasgelatik kanpo eta/edo arriskutsuak izan daitezkeen azpiegitura eta tresnak dituzten zentroetan garatzen diren jardueretan pertsonen segurtasuna eta dagokion segurtasun-araudia betetzen dela bermatu behar da. Ikastetxeen ardura da ikasleek ikasgelatik kanpoko jardueretan parte hartzeko, haien gurasoen edo tutoreen baimena eskuratzea. Horretarako, ikastetxeek jarduera bakoitzak izan litzakeen arriskuen berri emango die gurasoei eta tutoreei.

- 
- **Jokabide-kodea betetzea.** Ikastetxeek eta eragile sozioekonomikoek arduratu beharko dute jarduerak egiteko izendatzen dituzten irakasleek eta profesionalak jokabide-kode hau betetzen dutela zaintzeaz.
4. **Jardueretan parte hartzen duten irakasleentzako eta profesionalentzako jarraibideak.**

STEAM Sareren harira ikasleen, irakasleen eta STEM profesionalen artean sor litekeen harremana sentsibilitate handikoa izan daitekeenez, puntu honetan jaso ditugu azken bi kolektibo horiek jarduerak garatzean kontuan izan behar dituzten alderdiak:

- Irakasleek nahiz profesionalak jokabide-kodeari buruzko eranskin hau irakurri behar dute. Oinarriak, arauak eta jarraibideak ondo barneratzea lagungarri izango da alderdi guztien arteko lankidetzan ondo atera dadin eta segurua izan dadin.
- STEM profesionalak beti izan behar du gogoan ikasleentzat eredu dela. Jokabide egokia izan behar du, iraingarri edo haserregarritzat har daitezkeen jarrerak saihestuz (adibidez, jarrera sexista edo gutxiengo etnikoak diskriminatzen dituena).
- STEM profesionalak harreman pertsonalak saihestu behar ditu. Ez du ikasleekin inolako harreman pertsonalik izan behar jardueren esparruan. Ikasle jakin batekin jarduerak egin baino lehenagotik harremana izanez gero, horren berri eman beharko zaio ikastetxeari.
- STEM profesionalak saihestu egin behar du, jardueren esparruan, ikasleekin bakarka egotea. Nolanahi ere, irakasleak bertan egon beharko du, une oro, jarduerak egiten diren bitartean.
- STEM profesionalak jardueraren garapenera mugatu behar du ikasleekin duen harremana. Debehatuta dago ikasleekin jardueren esparrutik kanpo



harremana izatea (adibidez, etxera eramatea eskainiz, berehalako mezuen taldeak sortuz edo sare sozialetan jarraitzaile izanez, besteak beste).

- STEM profesionalak eta irakasleak ezingo dute ez drogarik, ez eta alkoholik ere eraman jarduera egiten den ikastetxera edo instalazioetara, ez eta han kontsumitu ere, eta ezingo dira, jarduerak irauten duen bitartean, horien eraginpean egon, ez eta ikasleen artean haien kontsumoa sustatu ere.
- STEM profesionalak adingabeak babesteko arauak bete behar ditu.
- Jarduerak garatzean, STEM profesionalak ez du xedetzat inolako finantza-eteikinik izan behar, ez beretzat, ez bere erakundearentzat ere. Adibidez, ez du produkturik edo zerbitzurik sustatuko, ez eta haien publizitaterik egingo ere, eta ez die jardueretako partaideei produkturik emango, emate hori ez badago behintzat jarduerarekin eta heziketa-xedeekin lotuta. Ez da, inola ere, xede komertzialekin arituko.
- Adingabeen datu pertsonalak babesteari garrantzi berezia eman behar zaio. STEM profesionalak, jardueretako parte-hartzaileen datu pertsonaletatik, jarduerak antolatzeko eta garatzeko behar-beharrezkoak direnak bakarrik tratatuko ditu, ez ditu beste ezertarako erabiliko eta partaideen pribatutasuna erabat errespetatuko du, horri buruz STEAM Sare arautzeko Oinarrietan ezarritako jarraibideak betez.
- Jarduerak interes-gatazkaren bat sor badezake, STEM profesionalak horren berri emango dio dagokion ikastetxeari.
- Ikastetxetik bisitan parte hartzera joaten diren helduek erne ibili beharko dute bisitak irauten duen artean. Ahal izanez gero, heldu bat ikasle-taldearen amaieran jarriko da, talde osoaren eta ikasleen jokabidea ikusteko moduan.